

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Ospitalegunea asteburuetan eta jaiegunetan proba osagarriak egitea aztertzen ari da

Langileak kontratatuz aurten abian jarriko zen neurri horri esker, itxarote-zerrendak eta herritarrentzako irisgarritasuna hobetuko ziren

Martes, 12 de abril de 2016

Nafarroako Ospitaleguneak larunbat eta jaiegunetan proba osagarriak egitea aztertzen ari da, esparru horretan itxarote-zerrendak murrizteko asmoz. Neurria 2016an sartuko zen indarrean, eta horretarako langileak kontratatu beharko ziren.

Hala iragarri du Parlamentuan Nafarroako Ospitaleguneako kudeatzaile Antonio Merinok, eta hark gaineratu duenez, hasiera batean, zabalitze hori erresonantzia magnetikoan, eskanerretan eta neurofisiologiako azterketetan egingo zen; izan ere, itxarote-zerrendan paziente gehien dauden espezialitateak dira.


Halaber, xede bera duten beste zenbait neurri ezagutarazi dira, esaterako: hemodinamikako azterketak arratsaldean egitea; neurofisiologian edo digestiboetan mediku gehiago kontratatzea; edo erizaintzako langile gehiago kontratatzea ireki berri diren endoskopien aretoetarako.

Lehen kontsulten eta ebakuntzen itxarote-zerrendak hobetzeko neurriak

Lehen kontsulten itxarote-zerrendak hobetzeko asmoz, honako zerbitzu hauetako langileria indartu da: Alergologia, Otorrinolaringologia, Kirurgia Baskularra eta Neurologia eta, laster, Errehabilitazioa, Neurologia, Dermatologia eta Kardiologia.

Gainera, beste neurri batzuk ere abian jarri dira, adibidez: arratsaldean egindako kontsultak (Alergologia, Otorrinolaringologia, Kirurgia Baskularra eta, pixkanaka, arratsaldean kontsultarik ez duten beste espezialitate batzuk sartuko dira), espezialista bakoitzeko kontsultakopurua handitzea astean; aurrez aurrekoak ez diren kontsultak; ekintza bakarreko kontsultak edo pazienteak egoera jakin batean itunpeko zentroetara bideratzea.

Beste ekimen aipagarri bat ohiko lanaldietan ebakuntza-gelen



Nafarroako Ospitalegunea proba osagarriak asteburuetan eta jaiegunetan egitea aztertzen ari da.

programazioa eta errendimendua hobetzea da, goizez nahiz arratsaldez. Neurri horri esker, ebakuntzak areagotuko dira hainbat espezialitatetan: dermatologia, oftalmologia, haurren otorrinolaringologia, kirurgia orokorra, haurren ortopedia edo kirurgia pediatrikoa. Kirurgiako zerbitzuetan lanaldia luzatzea edo ohiko lanaldia arratsaldeko ordutegira pasatzea eraginkortasun kirurgikoa hobetzeko bideratutako beste bi neurri dira.

Lehen kontsultako itxarote-zerrendan 2.000 pertsona gutxiago izan dira martxoan

Arreta Espezializatuko sare guztian, 2016ko martxoaren 31n, 48.877 pertsona daude lehen kontsulta baten zain, hau da, aurreko hilean baino % 4,5 gutxiago (-2.327). Nafarroako Ospitalegunean, 41.497 pertsona daude zain, otsailean baino 2.008 gutxiago (-% 4,6); Tuterako Reina Sofia ospitalean, 4.831 daude, aurreko hilean baino 262 pertsona gutxiago, eta Lizarrako Garcia Orcoyen ospitalean, 57 pertsona, eta orain 2.529 daude zain.

Egiturazko ebakuntzen itxarote-zerrendari dagokionez, Ospitale Sare guztia aintzat hartuta, 28 pertsona gehiago izan da itxaroten otsailarekin alderatuz; 9.508 dira orain (Nafarroako Ospitalegunean 85 pertsona gehiago, Reina Sofian 444 gehiago eta Garcia Orcoyenen, 13 gehiago). Igoera hori justifikatzen da lehenengo kontsulten jarduera asko handitu delako, eta egoera horrek ebakuntza gehiago eskatzea ekarri du. Nafarroako Ospitalegunean, ebakuntza izateko zain 8.268 pertsona izan dira martxoan, Reina Sofia ospitalean 735 eta Garcia Orcoyen ospitalean, 505 pertsona.